



BOLUNTARIOTZAREN **EUSKAL ESTRATEGIA** **2021-2024**

**BOLUNTARIOTZAREN
EUSKAL KONTSEILUA**



**CONSEJO VASCO
DEL VOLUNTARIADO**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Argitaraldia:

1.a, 2021eko otsaila

Ale-kopurua:

300 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Internet:

www.euskadi.eus

Egilea:

Boluntariotzaren Euskal Kontseilua

Diseinua eta maketazioa:

Kabinetearen eta Komunikazioaren Zuzendaritza.
Enpleguko eta Gizarte Politiketako saila

Inprimaketa:

XXXX

L.G.:

XXXXXX

Sailburuaren aurkezpena



“Zuk zeuk izan behar duzu mundurako nahi duzun aldaketa”: Mahatma Gandhiren aipamen ospetsu horrek ezin hobeto laburbiltzen du boluntarioen espiritua. Boluntarioak pertsona konprometituak dira, beren denbora eskaintzen dutenak gure ingurunea hobetzen laguntzeko, eta horretan ahalegintzen direnak, gero eta gehiago aurrea hartuz. Gainera, arazoak antzemateaz gain, arazoei konponbideak ematen laguntzeaz ere arduratzen dira. Eusko Jaurlaritzaren *“Boluntarioritza eta partaidetza sozialeko beste modu batzuk EAEn”* azterlaneko datuen arabera, EAEko herritarren % 70 inguruk parte hartzen du jarduera sozial eta/edo politikoren batean, eta % 13,4k boluntario-lanak egiten ditu hirugarren sektoreko erakunderen baten barruan.

Era berean, COVID-19aren pandemiak egoera kaltegarri oren azpian dagoen elkartasun-korrontea azaleratu du. Milaka pertsona mobilizatu dira, erakundeen bitartez eta erakundeetatik kanpo, besteak beste premia duten kolektiboek eta adinekoei eskuzabaltasunez laguntzeko. Berriz ere azaleratu dira auzokide onak gure auzoetan, auzolanaren espiritu tradizionalari ohore eginez: elkarlana, partaidetza eta lan partekatua guztion ongiaren alde. Boluntarioen balioen ildo beretik, betiere.

Gobernantza onerako balio duten balioak dira. Boluntarioek gardentasun handiagoa egotera behartzen duelako, eta gobernu ireki, harkor eta zintzoa eraikitzen ere bai. Pertsonak aukera izan behar dute zer pentsatzen duten eta haien ustez zer ez dabilen behar bezala adierazteko, baita hobetzeko ideiak eta ekintzak ekartzeko ere. Eta administrazioen eta organo eskudunen erantzukizuna da, hain zuzen, horretarako aproposak diren inguruneak sortzeko ardura hartzea. Hau da, zera lortu behar dugu: parte hartzen duten, kudeaketa publikoan eragiten duten eta eragile arduradunei kontuak ematera behartzen duten herritar gehiago egotea.


Boluntariotzako estrategia honen helburua da emakumeen ahalduz pertsonala eta kolektiboa sustatzea, jendarteratzeko bitarteko gisa; kontzientzia komuna eraikitzea, norberaren ikuspegitik ezagutzak eta proposamenak adierazteko eta ekartzeko aukera emate aldera. Benetako eraldaketak bultzatzeko, eta betiere jendeartean botere-oreka handiagoa egotean oinarrituta, rol eta erantzukizun partekatuen bidezko banaketaren aldeko aktibismoa indartu behar da, baita zainketen balioa ere.

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak gizateriarentzat garrantzi kritikoa duten bost eremu aipatzen ditu: pertsonak, planeta, bakea, oparotasuna eta partenariotza. Boluntario-lana eremu horietan guztietan dago, eta zeregin garrantzitsua du. Euskadi Basque Country 2030 Agendak 10. Helburuan (“Desberdintasunak murriztea”) kokatzen du Boluntariotzaren Estrategia. Horrek erakusten du, bada, politika sektorial horrek zenbateraino egiten duen bat Garapen Iraunkorreko Helburuei (GJH) lotutako helburuekin eta egiten duen ekarpenarekin.

Boluntarioek konfiantza eta itxaropena sortzen dute jendartearen. Bakea, gainerako pertsonentzako zerbitzua eta garapen soziala sustatzen dute, “inor atzean ez uzten” lagunduz eraiki nahi dugun etorkizun komun horren barruan.


Beatriz Artolazabal
Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua
Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko lehendakaria

Aurkibidea



1. Sarrera	7
2. Aurrekariak eta testuingurua	9
3. Erronkak	13
4. Hartzaileak	17
5. Eragile estrategikoak	18
5.1. EAEko Boluntariora eta Partaidetza Sozialeko agentzien zeregina	18
6. Estrategiaren hedapena	19
6.1. Helburu orokorra	20
6.2. Ildo estrategikoak: Helburuak, ekintzak eta proiektuak	21

1. Sarrera



Boluntariotzaren Euskal Kontseilua Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 14. artikulua bidez sortu zen, “boluntariotza gaiaren inguruan biltzeko, aholkuak emateko eta kontsultak egiteko organo gisa”, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetako boluntariotza-ekintzetan herritarren parte-hartzea arautzeko helburuarekin. 2002ko abenduaren 9an, Kontseiluak Boluntariotzaren I. Euskal Plana onartzea proposatu zuen. Plan horren bidez hasi ziren Euskal Autonomia Erkidegoko boluntario-lanaren oinarri instituzionalak ezartzen. Harrezkero, bost plan eta estrategia izan dira fenomeno sozial hori garatzen ari den esparruaren bilakaerari jarraipena eman diotenak. Jakina, datozen urteetarako ibilbide-orriak jarraipena ematen die aurreko planetan hasitako prozesuei, eta, aldi berean, boluntario-lanaren izaera eraldatzailean sakontzera bideratutako ekintza berriak proposatzen ditu.

Estrategia honek pertsonak borondatezko zerbitzu bat ematera bultzatzen dituzten kezka eta balio sakonen isla eta pizgarri izan nahi du. Izan ere, gure jendartean gauza materialak edukitzea bultzatzen da zoriontasuna lortzeko balioko balu bezala (“asko edukitzea”, “ongi izatea” beharrean). Horrenbestez, gutxiengoaren jarrera izaten da interes materialik gabe zerbitzu ematea, eta batzuetan ez da ezta ulertu ere egiten jarrera hori. Hala ere, gero eta

persona gehiago jabetzen ari dira oreka eta gogobetetasun pertsonala ez dartzela kanpoko konkistetatik, gure ekintzetatik baizik. Gero eta jende gehiagok zerbitzu eta konpentsazio emozionalaren truke ulertzen ditu harremanak, eta ez soilik gauza materialen truke. Oparotasuna ez denez soilik merkataritza arloan neurtzen, boluntario-lanak ez du diruzko ordainik ematen, baina, bai, ordea, bizi-ugaritasuna.

Luis Aranburuk dioen bezala, boluntarioen balioak (hala nola, konpromisoa, elkartasuna, eskuzabaltasuna, enpatia, erabakimena, ikaskuntza, osotasuna ...) "arimarako elikagai" bihurtzen dute haien egitekoa, eta pertsona bakoitzak bere inguruabar berezien arabera esperimentatzen ditu. Estimua eta konfiantza izatea eskatzen du boluntario aritzeak, eta, aldi berean, biak ematen ditu, komunitatearen bizitzarekin lotura emozionalak eta askotariko kausekin lotura ideologikoak sortzen baititu, helburu komun batekin betiere: jendartea eta ingurunea hobetzen laguntzea. Gainera, pertsonen gozamenarekin eta haien arteko konexioarekin ere badauka zerikusia boluntario-lanak. Haren ondorio positiboak Europako zenbait azterlanek berretsi dituzte, zeinetan adierazle berriak ezarri baitira, kohesio soziala edo zoriona neurtzeko, baita interkonexio-gaitasuna, parte-hartzea eta boluntarioen ongizatea ere (*On the problem of measuring happiness*, Sabine Hossenfelder-rena).

Boluntariotzaren Euskal Estrategiak bultzatzen duen ereduak pertsonak ditu ardatz. Eredu horretan, boluntariotzari eta, oro har, jendarteari aktiboki entzutea ezaugarri bereizgarria da, azken urteotan egindako dinamika parte-hartzaile ugariak eta azterlan estatistiko, soziologiko eta tematikoen erakusten duten bezala. Eredu horretan emakumeen eta gizonen egoera desberdina kontuan hartzeari buruzko garapen praktikoa ere planteatzen du.

Elkarrizketa sozial horretatik abiatuta, egungo strategiaren bidez boluntariotza bultzatu nahi da indar eraldatzaile gisa, eragin soziala eta politikoa izan dezan, jendartean hobekuntzak sustatzeko. Komunitatea aktibo eta kritikoa elikatu nahi da, kontzientzia kolektibo handiago batetik abiatuta, gure jokabideei buruzko hausnarketa sustatzen duena. Estu lotuta daude boluntariotza eta aktibismo soziala terminoak, biak ala biak premisa beretik sortzen baitira: aldaketak bultzatu behar dira, handiak edo txikiak izanda ere.

Boluntariotza baliabide handia da gure garaiko garapen-erronketako askori aurre egiteko, eta inplikazio soziala, parte-hartze inklusiboa eta gobernantza ona nabarmen sustatzeko ahalmena du. Nazio Batuen Batzar Nagusiak boluntariotzaren hiru ezaugarri nabarmentzen ditu hari buruz egiten duen definizioan: borondatez egindako jarduerak dira, jendarte osoaren onerako eta ordainsari ekonomikorik jaso gabe egiten direnak.

2.

Aurrekariak eta testuingurua



Estrategia honek Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak 2013an ezarritako definizioaren zentzua eta indarraldia egiaztatzen ditu, Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legeak xedatzen duenaren gainean eraikiz:

“Boluntariotza gizarte-partaidetzaren adierazpen zehatza da, interes orokorreko eta izaera solidarioko jardueren multzoak osatua, pertsonak irabazi-asmorik gabeko proiektu kolektibo baten inguruan garatuak. Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izan behar dute; arrazoia lan-, funtzionariotza- edo merkataritza-harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebeharr juridikoa ere.

Boluntarioek zerbitzu komunitarioko bokazioarekin jarduten dute, eraldaketaren eta guztien ongiaren bila, eta beste gizarte-eragile batzuen ekintzaren osagarri dira, eta ez dute administrazio publikoek erantzukizunak alde batera uzteko estaldura gisa balio, ezta zerbitzu profesionalak ez ordaintzeko ere”.

2017-2020 estrategiaren arabera, boluntariotza parte-hartze sozialaren adierazpen nagusietako bat ere bada: “Gizarte demokratiko baten ardatz nagusie-

tako bi dira. Alde batetik, guztion onerako konpromisoak eta erantzukizunak hartzeko norbanakoaren eta taldearen gaitasuna da. Bestetik, gobernantza-estilo osasungarri baten adierazpenik adierazgarrienetako bat da, jendearen baliabideak aprobetxatzen baititu, eta gaitasuna ematen baitie gauza publikoan eragiteko, kudeaketan parte hartzen duten eragileen arteko etengabeko elkarrizketan”.

Bestalde, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren Lantalde Iraunkorrek honela definitu zuen partaidetza soziala: “Espazio publikoan zuzenean edo zeharka eragitera bideratutako edozein jarduera, pertonek zenbait ekintza eta bideren bitartez egiten dutena, bai norberaren izenean, bai era guztietako herritarren elkartean bitartez ere. Partaidetza soziala komunitateko kide izatearen kontzientziaz sortzen da beti; izan ere, erantzukizunaren balioak eta garapen sozialean esku hartzeko eskubidea oinarri hartuta, pertsona batzuk komunitatea eraldatzera eta hobetzera bideratutako ekintza zibiko mota guztietan aktiboki parte hartzera bultzatzen ditu”. (* Boluntariotzaren Estatuko XV. Biltzarra. BEC, 2012ko azaroa).

Boluntarioak dituzten erakundeak eta boluntariotzako erakundeak bereizi egin behar badira ere, Legeak honela definitzen ditu aipatu azkenak: “Legez eraturako erakundeak, irabazi asmorik gabeak, beren jarduera interes orokorreko jardueren esparruan garatzen dutenak, gehienbat boluntarioek osatzen dituztenak eta beren programa edo ekintza-proiektu gehienak nagusiki boluntariotza horren bitartez garatzen dituztenak”. Gaur egun, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala osatzen duten erakundeen % 88tan kideen %50 edo gehiago boluntarioak dira, eta erakundeen ia % 50tan boluntarioak dira kide guztiak.

Boluntarioei buruzko EAEko Legeak ere jasotzen du aldian behingo informazioa biltzeko tresnak sortzearen garrantzia, ikerketarako oinarri gisa balio dezaten:

boluntarioen egoerari buruzko urteko txostena ematea, esaterako. Lehengo txostena 2004an egin zen, eta azkena 2020an. Azken txosten horren ondorioen gainean eraiki da, hain zuzen, gaur egungo dokumentu estrategikoa.

Boluntariotzaren Euskal Estrategia Eusko Jaurlaritzaren egitura estrategiko eta arauemailean txertatuta dago, eta, beraz, koherentea eta osagarria da zenbait tresna sektorialekin. Haien artean daude, besteak beste, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategia, Gobernantza eta Berrikuntza Plan Estrategikoa, EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Plana, Gazte Plana, Gizarteratzeko Euskal Plana, Immigrazioareko Euskal Estrategia, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Estrategia, Adinekoentzako Gobernantzako Euskal Estrategia edo Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia, Adindunekiko Partaidetza Publiko Sozialaren erudia bere baitan hartzen duena.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legeak ere, zeina 2016an onartu baitzen, garrantzi berezia du boluntariotzaren esparruan, sektorearen funtsezko ezaugarrietako bat borondatez osatzen dela baita. Era berean, administrazio publikoek eta hirugarren sektoreak parte hartzen dute esparru horretan, boluntariotza, elkarrekiko laguntza eta partaidetza soziala sustatze aldera.

Estrategia horrek eutsi egiten dio boluntariotza sustatzeko politika eta neurriekiko loturari, eta politika eta neurri horiek Estatu-mailan sustatzen dira, Boluntarioei buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legearen esparruan, bai eta Europan ere, boluntariotzak Europa 2030 Proiektua estrategiari laguntzen dion heinean. Era berean, Europar Batasunaren politiken funtsezko helburuekin laguntzen du zuzenean, hala nola gizarteratzearekin, enpleguarekin, hezkuntzarekin edo gaitasunen garapenarekin eta herritartasunarekin. Helburu haiek aske hartzearen printzipioak Volonteuropako Europako Gutunean jasotzen dira.

Mundu-mailan, Nazio Batuen 2030 Agendak markatzen du, dudarik gabe, etorkizuna. Izan ere, agenda horrek ekintza global itundu baten printzipioak ezartzen ditu, Garapen Jasangarriko 17 Helburuak lortzeko. Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015ean onartu zuen, eta 193 herrialdek konpromisoa hartu zuten lehen aldiz elkarrekin lan egiteko 169 helburu komun lortzeko, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-eremuetan. Euskadi-Basque Country 2030 Agendak 10. Helburuan kokatzen du Boluntariotzaren Estrategia (“Herrialdeetan eta herrialdeen arteko desberdinkeria murriztea”), haren helburuetako bat “boluntarioen lana bultzatzea” baita.

Testuinguru horretan, gobernantza-politikak, desberdintasunen aurkako borroka eta jendartearen adierazpen- eta partaidetza-gaitasuna babestea funtsezko aldeak dira. Boluntarioek laguntzen dute ahalegin horietan, alde interesdunei ahotsa emanez eta herritarrak eta jendarte zibileko erakundeak mobilizatuz, irtenbideak eman ditzaten.

Azkenik, eta aurrekoa bezain garrantzitsua dena: estrategia hau COVID-19aren pandemiaren testuinguruan kokatzen da, eta haren barruan idatzi da; koronabirusa mundu osoan hedatu izanak azken hamarkadetako osasun-, gizarte- eta ekonomia-krisirik handiena eragin baitu. Gaixotasunaren kutsadurak geldiarazteko, Espainiako Estatuak alarma-egoera dekretatu zuen, eta, 2020ko martxoan, hamalau hilabetez luzatu zuen, aldizka; herritarren zirkulazio askea funtsezko ekintzetara mugatzeraino heldu zen, hala nola elikagaiak eta medikamentuak erostera, edo zentro medikoetara edo lantokira joatera. Salbuespenezko egoera hori zela-eta ezohiko neurri bat hartu ahal izan zen: biztanleria etxeetan konfinatzea.

Pandemiaren ondorioz urrutiago egon gara elkarrengandik, baina, aldi berean, pertsona askoren artean bizi-lehentasunak birplanteatu dira, ohiturak aldatu egin dira kontsumo kontzienteagoa lortzeko edo kontzientzia indibidual eta kolektibo handiagoa hartu da. Boluntariotzak Euskadin duen egoerari buruzko Diagnostikoak (2020) zera islatzen du: lehentasuna eman zitzaion jarduerak testuinguru berrira egokitzeari (digitalizazioa, urruneko arreta ...), baita EAEn identifikatutako ehun elkartasun-ekimen baino gehiago abian jarri ziren, 300.000 pertsona ingururi mesede egin ziotenak.

Egoerak agerian utzi du boluntarioen mugimenduak malgutzeko eta sortzeko duen gaitasuna, baita sareko lanaren eta lankidetzaren publiko-sozialaren garrantzia ere. Pandemiak agerian utzitako egoeren aurrean sortutako elkartasun-korronteak, beste behin ere, jendartearen zati handi baten lankidetzaren balioak erakusten ditu, zeinak etorkizunean behintzat partzialki bideratu daitezkeen.

Krisi horren ondorioek, diru-sarreraren jaitsierari, pobreziaren hedapenari eta langabeziaren eta premia larriaren hazkundeari dagokienez, COVIDaren osteko aroaren hasiera ezartzen dute. Egoera makroekonomiko berria zalantzaragarria da, eta, seguru aski, pertsona askorentzat gogorragoa eta zailagoa izango da. Eta egoera horretan, boluntarioek funtsezko zeregina izango dute.

3.

Erronkak



Boluntariotzaren Egoerari eta EAEko beste parte-hartze modu batzuei buruzko Txostenak (2017) boluntarioen % 96 egiten duen lanarekin pozik edo oso pozik dagoela adierazten du. Hala ere, Boluntariotzak Euskadin duen egoerari buruzko 2020ko Diagnostikoa eta estrategia hau lantzen ibili direnek, baita Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak agindutako sektore-txosten ugariak ere, adierazten dute zaila dela zenbait aldetan aurrerapenak lortzea. Orobat, eremu berrietan hobetu beharreko arloak aipatzen dituzte:

Boluntarioak ikusaraztea: oraindik ere ez da ikusarazi behar bezala elkartemugimenduan eta boluntarioen artean dagoen aberastasuna eta aniztasuna. Bereziki nabarmentzen dute emakumeek boluntario gisa egiten duten lanari balioa emateko garrantzia. Horrenbestez, boluntarioek jendarte osoari egiten dioten ekarpena gehiago eta hobeto komunikatzea lehentasunezko erronka da, gaur egun. Komunikazioaren irismena eta eragina indartzeko ahaleginak bitarteko estrategiko gisa aurkezten dira, tresna operatibo gisa baino gehiago, herritarren partaidetza, eragin politikoa eta eraldaketa soziala sustatzeko azken helburuak lortzeko.

Boluntarioen gaineko kudeaketa eta zaintza: boluntarioak zaintzea funtsezko erronka da oraindik boluntarioak dituzten erakundeentzat.

Boluntarioaren ziklo osoko harrera eta laguntza emozionala indartu beharreko aldeak dira.

Ildo beretik, behin eta berriz agertzen da **erabaki-guneetan boluntarioen ordezkaritza** sustatu beharra. Boluntarioek funtsezko zeregina betetzen dute erakundeetan, eta zeregin hori islatu egin beharko litzateke, eta koherentea izan beharko luke eztabaida-, gogoeta- eta zuzendaritza-guneetan duten partaidetzarekin,

Prestakuntzak erronka handienetako bat izaten jarraitzen du zenbait eremutan: prestakuntza espezializatua behar da, kalitatezko esku-hartzea bermatuko duena, baita komunikazioarekin, digitalizazioarekin edo gaitasun berriekin lotutako gaitasunen gaineko trebakuntza ere (betikotzeko heldu zaizkigu eta telelana, urrutiko bilerak eta abar). Gaitasun teknikoaren zein generikoen gaineko prestakuntza ere beharrezkoa da, baita boluntarioaren giza garapenean bertan ere.

Erreleboa eta lidergo mota berriak: oinarri sozialetan konprometitutako boluntario falta antzeman da, baita erakunde askoren funtzionamendua eta beharrezko berrikuntza bultzatuko duten lidergoen defizita ere. Ildo horretan, kantitatean eta kalitatean herritarren partaidetza areagotzera bultzatzen duten **motibazioak sustatu eta indartzeko**, beharrezkoa da prestakuntza eta pedagogia, eta boluntario-lanaren aitormena eta balorazioa, eremu horretan emakumeek egiten dituzten ekarpenak berariaz ikusaraziz. Motibazioa – borondatezko lanaren aitormenarekin eta balioespenarekin lotua – funtsezkoa da, aldi berean, pertsonak erakundeetan eraginkortasun handiagoz inplikatzeko eta konprometitzeko laguntzen baitu.

Boluntarioen prestakuntzari buruzko hausnarketa-mintegiaren (2018) ondorioen txostenak “prestakuntza eraldaketarekin lotzearen” aldeko apustua egiten du, antolakundeetan eta komunitateetan aldaketen buru izateko herritar aktiboak suspertzeko eta indartzeko erakundeetan eta komunitateetan. Jendartea aldatzen lagunduko duen garapen pertsonalerako aukera da.

Gizarte-, hezkuntza-, eskola-, unibertsitate- eta lan-sektoreko pertsona askok diote etorkizuneko jendarteak eskatzen dituen gaitasun teknikoak eta pertsonen artekoak presente daudela boluntariotzan, eta baloratu egin behar direla erakundeen profesionalizazioak eta herritarrek partaidetza antolatuarekiko duten desafekzio handiagoak planteatzen dituzten erronkak modu positiboan aprobeztatzeko.

Enpresa enplegatzaileek gehien eskatzen dituzten zeharkako sei gaitasunetatik bost hirugarren sektore sozialeko erakundeetan boluntario-lanaren bidez gehien garatzen direnen artean daude: komunikazio-gaitasunak, antolakuntzakoak, erabakiak hartzekoak, talde-lanekoak edo autonomiakoak.

Digitalizazioa: gai hori erronka bat bazen lehendik, lehentasunezkoa da gaur egun. Pandemiak agerian utzi du pertsona eta erakunde askok (batez ere txikiak direnak) dituzten gabeziak tresna digitalen kudeaketari dagokionez. Krisi horren ondorioz, presazko birmoldaketa egin behar izan da, baina eraldaketa digitalak ez du atzerako martxarik. Ildo horretan, gogoeta egin behar da zer dabilen ondo eta zer ez antzemateko, eta erakundeen eta boluntarioen trebakuntza digitala sustatzeko.

Jendartean parte hartzeko modu berriak aztertu: COVID-19ak eragindako konfinamendualdiak eta kontaktu sozialaren murrizketek birtualki aritzera behartu dute, askotan, erakundeen barne-kudeaketaren esparruan ez ezik, zerbitzuen prestazioan bertan ere. Horren ondorioz, erakundeetan boluntario berriak txertatu dira online formatuan. Inplikazio-formula berritzailea da, eta dauzkan potentzialtasunak esploratzera bultzatzen du.

Pandemiak inoiz ez bezala azkartu du jendartearen eta elkartasunaren munduaren teknologizazioa. Horrela, agerian geratu da pertsona eta erakunde askok gabeziak dituztela tresna digitalak eskuratzeko eta kudeatzeko orduan. “Kolektibitatekonektibitate” igarotzea ekarri du egoerak, Imanol Zuberok dioen bezala. Eta, horren ondorioz, boluntario “natibo digitalak” sartu dira, zeinen lehen esperientzia online izan baita. Boluntario berri horiek konektatuta daude, eta aktiboak eta berritzaileak dira. Izan ere, gazteek modu berriak aurkitzen dituzte beren elkartasuna ulertzeko eta erakusteko, boluntario aritzeko eta ingurunearekin, komunitatearekin eta erakundeekin harremanak izateko.

Komunikazio digitalak ezin du giza kontaktua ordeztu, baina aukera eman du ahulezia- eta bakardade-egoeretara hurbiltzeko eta haietara iristeko; bestela ez bailirateke egoera horiek detektatuko. Eten digitala eta hark emakumeengan duen eragina kontuan hartuta, IKTek kolektibo jakin batzuetara iristeko dituzten aukerak baliatu behar dira.

Baita **sareko lana** sustatzeko eta zabaltzeko ere. Erronka horretan eragin behar da boluntario-lanaren irismena eta eragina zabaltzeko eta pertsona eta talde motibatuak eta konprometituak elkarren artean erlazionatzeko, elkarrengandik ikas dezaten eta aukera eta baliabide berriak aurki ditzaten. Era berean, partekatze beldurra galdu behar dira, eta lankidetzak eta elkarlana sustatu.

Boluntario berriei eustea: pandemian zehar pertsona asko agertu dira boluntario, laguntza eta lankidetzak eskaintzeko. Egia bada ere kasu askotan konpromiso hori konfinamenduaren unerik gogorrenetara mugatu dela, esperientzia horrek mugimenduan sartzeko bidea eman die beste pertsona askori, eta, nolabait, positiboa izango litzateke pertsona horiek boluntariotzarekin lotzea. Hau da, larrialdi-egoeren ondorioz jendartean pizten den elkartasun-korrontea bideratu behar da. Komeni da etorkizunean

laguntzak antolatzea eta koordinatzea aurreikustea, ez soilik laguntzen eraginkortasuna eta efizientzia indartzeko, baita egoera horietan agertzen den “talentu” solidario horri eusteko ere, sarritan ez baita denboran eusten.

Boluntario berriak: Zenbait sektoretako pertsonak, gazteak zein adinekoak, ekintza boluntariorantz erakartzeko beharra dago. Estatistikaren arabera, 18-29 urteko gazteen % 30ek boluntario dihardu, eta 65 urtetik gorakoek kolektiboak proportzio txikiagoan parte hartzen du (% 7,5), baina iraunkortasun handiagoarekin. Erakundeetako kide gehiago dira 40 eta 64 urte bitarteko pertsonak. Egoera horrek aukera ematen du adin-talde horrek borondatezko ekintzarako eskaintzen duen etorkizun handiko potentziala ateratzeko, eta talde horren zati bat erretirotik gertu dago.

Emakumeak ahalduntzea: beharrezkoa da emakumeek gero eta erantzukizun handiagoko postu gehiago hartzea boluntariotzako erakundeetan eta proiektuetan. Genero-berdintasunari eta zeharkako ikuspegiari buruzko prestakuntza espezifikoak behar dira bestelako trebakuntzetan. Emakumea eta Boluntariotza azterlanaren arabera, oro har uste da boluntariotzaren eremuan berdintasuna lortuta dagoela jada, baina oraindik ere desparekotasun-egoerak hautematen dira zereginen banaketan edo erabaki-eremuetan. Boluntario asko ez dira egoera horretaz jabetzen oraindik, ezta erakundeetan, jendartean eta beren bizitzetan duen eraginaz ere.

4.

Hartzaileak



- **Jendartea, oro har:** alde batetik, ekintza boluntarioaren helburua ingurunea hobetzea eta premia- eta kalteberatasun-egoerak konpontzen laguntzea da. Bestalde, biztanleriaren edozein sektore inplika daiteke boluntariotzan.
- **Boluntarioak:** subjektu aktiboak eta parte-hartzaileak dira, boluntario-lanaren protagonistak. Boluntarioaren zaintza eta sustapen partikular eta konpetentziala estrategia honen erdigunean dago.
- **Hirugarren sektoreko erakundeak:** borondatezko lana eratzeko eta egituratzeko erakundeak diren aldetik. Zenbait helbururen aldeko ekintza hitzartua gauzatzen den aliantza-gune gisa, eragina biderkatzea ahalbidetzen duena, espezializazioaren eta baterako lan koordinatuaren bidez.
- **Administrazio Publikoa:** ekintza boluntarioa garatzen den esparru instituzional eta normatiboaren egilea den aldetik, jendartea hobetzeko eta garatzeko kultura egokia sortzeaz eta hura ahalbidetuko duten sistemaren oinarritzko baldintzak bermatzeaz arduratzen da.
- **Boluntariotzaren Euskal Kontseilua:** Euskadiko boluntariotzaren arloko topaketa-, aholkularitza- eta kontsulta-organoa. Horren barruan, Boluntariotzaren Euskal Estrategiak Kontseiluari planteatzen dion talde eragilea da Lan Batzorde Iraunkorra.

5. Eragile estrategikoak

Estrategia honen helburuak lortzeko Euskadiko partaidetza soziala eta boluntario-lana sustatzen eta kudeatzen nolabaiteko erantzukizuna edo esku-hartzea duten zenbait erakunderi eragiten die. Hauek dira:

- Boluntarioak dituzten erakundeak.
- Hirugarren sektoreko erakundeen antolakundeak, sareak eta koordinatzaileak.
- Boluntarioak.
- Administrazio publikoak (autonomikoak, foralak eta udalekoak).
- Ikastetxeak eta unibertsitateak.
- Partaidetza- eta boluntariotza-agentziak.
- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.

5.1. Boluntariotza eta Partaidetza Sozialeko agentzien zeregina

2002az geroztik EAEn garatu diren Boluntariotzako plan eta estrategiek behin eta berriz aipatu dute Eusko Jaurlaritzak EAEko hiru lurralde historikoetako Boluntariotza eta Partaidetza Sozialerako agentzien lana aitortu eta berdintasunez indartu behar duela, eta erantzukizun hori izateaz gain, haien lanean oinarritu egin behar dela. Batekin, Bolunta eta Gizalde agentziei buruz ari gara, hurrenez hurren, Arabari, Bizkaiari eta Gipuzkoari dagozkienak.

Hiru agentziek funtsezko lana egiten dute Euskadiko sare soziala garatzeko, elkartasuna eta parte-hartzea sustatzeari dagokionez, bai eta boluntarioei eta boluntariotzako erakundeek laguntza teknikoa emateko ere: informazioa, prestakuntza, aholkularitza, EAEko arau-esparrura egokitzea ...

Beraz, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak funtsezko subjektutzat jotzen ditu erakunde horiek egungo Boluntariotzaren Euskal Estrategia diseinatze eta garatze aldera. Modu lerrotuan, eta inplikaturako gainerako eragileekin batera, Boluntariotzako Euskal Planen helburuak lortzera bideratutako ekintza guztiak gidatzea eta gauzatzea proposatzen die.

6. Estrategiaren hedapena

Egungo Boluntariotzaren Euskal Estrategiak erronkak helburu bihurtzea planteatzen du, jendarte ahaldundua eta eraldatzailea eraikitzen jarraitzeko.

Helburu orokorra

Boluntariotza eta partaidetza soziala sustatzea, eta haien eragin politikoa eta soziala sustatzea, herritarrek solidarioak, aktiboak, kritikoak eta eraldatzaileak izan daitezen.

ILDO ESTRATEGIKOAK

1. I.E.
BOLUNTARIO-LANAREN
IERAGIN SOZIAL ETA
POLITIKO HANDIAGOA
LORTZEA

2. I.E.
BOLUNTARIOAK ETA
HAIEN ERAKUNDEAK
INDARTZEA

3. I.E.
PARTAIDETZAREN,
ELKARTASUNAREN
ETA LANKIDETZAREN
KULTURA BULTZATZEA

4. I.E.
BOLUNTARIOTZAREN
KONZEPТУ- ETA
ARAU-ESPARRUA
EGUNERATZEA

HELBURUAK

1.1. H.
Boluntario-lanaren
ikusgarritasun
handiagoa sustatzea.

2.1. H.
Boluntarioen
gaikuntza eta
garapena sustatzea.

3.1. H. Hezkuntza-
eremuan
sentsibilizatzea
boluntario-lanaren eta
partaidetza sozialaren
balioaren inguruan.

4.1. H. Ikuspegi
estrategikoa Europako
boluntariotza-
politikekin lerrotzea.

1.2. H.
Boluntariotzaren
Euskal Kontseilua
indartzea.

2.2. H.
Boluntarioek
erakundeetan
ordezkaritza izan
dezaten laguntzea.

3.2. H. Digitalizazioa
sustatzea boluntario-
lana eskuratzeko
tresna gisa.

4.2. H. GJHak
boluntarioen esparru
konzeptualean
sartzea.

1.3. H.
Boluntarioei eta
partaidetzari buruzko
ikerketasustatzea.

2.3. H.
Boluntariotzaren
balioa aitortzea,
kanpo- eta barne-
mailan.

3.3. H. Enpresa-
eremuan boluntario-
lanaren inguruan
sentsibilizatzea.

4.3. H. Boluntarioei
buruzko araudi
autonomikoa eta haren
errola eguneratzea.

2.4.H.
Erakundeetako
boluntariotzari arreta
emateko planak
bultzatzea.

3.4. H. Talde
espezifikoei eta
agindua ematen duten
eragileei zuzendutako
sentsibilizazio-
ekimenak sustatzea.

3.5. H. Partaidetza
soziala eta
boluntariotza sustatzea
tokiko mailan.

PROIEKTUAK

KOMUNIKA 25

BOLUNTARIO-
ESKOLA

RE-KONPENZA

DIDAKTIKA

BHERRIA

6.1. Helburu orokorra

Estrategiaren helburu nagusia bere helburu orokorraren formulazioan laburbiltzen da:

“Boluntarioria eta partaidetza soziala sustatzea, eta haren eragin politikoa eta soziala bultzatzea, herritarrak solidarioak, aktiboak, kritikoak eta eraldatzaileak izan daitezen”.

Boluntarioria eraldatzailea sustatzeak hiru dimentsiotan jardutea esan nahi du: pertsonalean, antolamendukoan eta sozialean. Dimentsio pertsonaletik, boluntarioak barrutik garatu eta eraldatzen dira. Pertsona eta profesional gisa dituzten gaitasunak ematen dituzte eta haietan trebatzen dira, eta eremu horietan ikasi egiten dute. Erakundearen ikuspegitik, boluntarioak dituzten erakundeak parte-hartzaileagoak, malguagoak eta gardenagoak dira, integratuagoak eta integratzaileagoak. Jendartearen ikuspegitik, ingurunea hobetzeko motibazio sakonetik abiatzen da boluntarioria. Egitura sozialak zalantza jartzen, aldatzen eta konponbideak ekartzen laguntzen du, irekiagoak eta inklusiboagoak izan daitezen. Erakundeak eraldatzeak jendartea aldatzen laguntzen du, pertsonen erakundeetan eta erakundeekin egiten duten bezala. Jendarte eraldatzailea izan dadin, herritar aktiboak behar dira.

6.2. Ildo estrategikoak: Helburuak, ekintzak eta proiektuak

1. I.E. Boluntario-lanaren eragin sozial eta politikoa handiagotzea

Herritarrak aktiboak, eraldatzaileak eta kritikoak izan daitezen lortzen laguntzeko, ezinbestekoa da antolatutako jendarte zibilak gai publikoetan duen eragina handitzea. Horretarako, funtsezkoa da Boluntarioria Euskal Kontseiluak duen lidergo instituzionala indartzea, eta koordinazio publiko-sozial, interkonexio eta elkar ulermen handiagotzea (Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako, udaletako eta erakunde sozialetako ordezkariak osatzen dute aipatutako kontseilua). Era berean, boluntario-lana ikusaraztea baliagarria da jendartea partaidetzaren garrantziaz sensibilizatzeko eta lan hori aitortzeko, inplikazio handiagotzea eraginez.

HELBURUAK	EKINTZAK	PROIEKTUAK
I.1. H. Boluntario-lana gehiago ikusaraztea	<p>I.1.1 Estrategia bat diseinatzea EITBrekin eta beste komunikabide orokor batzuekin, komunikabideetan borondatezko lana ikusarazteko.</p> <p>I.1.2 Komunikazioari buruzko prestakuntza-ikastaro bat egitea Boluntario-Eskolaren esparruan, erakundeen barne-eta kanpo-komunikazioa hobetzeko.</p> <p>I.1.3 Boluntariotzaren Nazioarteko Egunaren inguruko ospakizun eta aitorten-ekitaldia antolatzea (abendauren 5ean da).</p> <p>I.1.4 Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarentzat eta Boluntariotzaren Euskal Erakundearentzat komunikazio-estrategia bat definitzea.</p>	KOMUNIKA.25
I.2. H. Boluntariotzaren Euskal Kontseilua indartzea	<p>I.2.1 Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendua berrikustea, Kontseilua dinamikoagoa, parte-hartzaileagoa eta integratzaileagoa izan dadila lortzeko.</p> <p>I.2.2 Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren Lantalde Iraunkorrean edo haren barruan sortutako lan-batzordeetan eragile berriak sartzeko aukera baloratzea, boluntariotzako erakundeak integratzen saiatuz eremuen eta lurraldeen ordezkarritasuna errazteko.</p> <p>I.2.3 Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan dauden Eusko Jaurlaritzako sailen artean bilerak egitea, Gizarte Politiketako Zuzendaritzaren gidaritzapean, estrategia jendarteratzeko eta boluntariotzaren ikuspegia jendarteratzeko eta integratzeko aukerak indartzeko.</p> <p>I.2.4 Lantalde iraunkorraren funtzionamenduari buruzko dokumentua eguneratzea.</p>	KOMUNIKA.25
I.3. H. Boluntarioei eta partaidetzari buruzko ikerketa sustatzea.	<p>I.4.1 Boluntarioak eta partaidetza gai nagusitzat duten azterlanak egitea eta zabaltzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ EAEko boluntarioen egoerari buruzko azterketa estatistikoa. ✓ Txosten kualitatiboa: Boluntarioen egoera, EAEn (2024). ✓ Immigranteen boluntariotzako erakundeetan integratzeari buruzko azterlana. 	KOMUNIKA.25

I.E.1 PROIEKTUA:

KOMUNIKA.25

Proiektu honek komunikazioa erabiltzen du strategiaren helburu gehienak lortzeko tresna eta bitarteko estrategiko gisa. Haren barruan komunikazio-plan bat dago entregatzeko, estrategia osoarekiko zeharkakoa, komunikazio-mugarri garrantzitsuenak definitzen dituena, bai eta komunikazio-ekintza bakoitzean jarraitu beharreko komunikazio-irizpideak ere. Partaidetza eta boluntario-lana eraldatzeko, sentsibilizatzeko eta ikusarazteko tresna bezala balio behar du.

I.E.2 Boluntarioak eta haien erakundeak indartzea

Boluntarioak eta haien erakundeak dira eraldaketa kolektiboak sortzeko eragile protagonistak. Boluntario-lana gauzatzeak esperientzia eta gaitasun teknikoak ez ezik, generikoak eta pertsonen artekoak ere eskatzen ditu, eta haiek aintzat hartu eta balioetsi egin behar dira Hirugarren Sektorean, barruan zein handik kanpo, hasitako lanari jarraituz. Boluntarioen balioak sustatzeak erakundeak indartzen ditu, eta jendartea oro har ere bai.

HELBURUAK	EKINTZAK	PROIEKTUAK
2.1. H. Boluntarioen gaikuntza eta garapena sustatzea.	2.1.1 "Boluntarioak prestatzeko 2021-2024 Plan Bateratua" egitea.	BOLUNTARIO-ESKOLA KOMUNIKA.25
2.2. H. Boluntarioek erakundeetan ordezkartza izan dezaten laguntzea	2.2.1 Erakundeetan boluntario eraldatzaileak egotea bultzatuko duen gida bat egitea. 2.2.2 Hiru lurraldeetan dauden boluntariotzako toki-erakundeen sareen artean baterako jarduerak egitea, zenbait eremutakoak. 2.2.3 Boluntarioak elkartzeko aisiarako guneak sortzea, elkarren arteko harremanak eta kide izatearen sentimendua errazteko eta boluntario-lana erakartzeko. 2.2.4 Zenbait erakundetako boluntarioen artean topaketarako eta elkarlaneko ikaskuntzarako guneak sortzea, indarrak eta jardunbide egokiak partekatzeke, eta boluntarioek dituzten erronka nagusiei irtenbideak emateko.	BOLUNTARIO-ESKOLA KOMUNIKA.25
2.3. H. Boluntarioen ekintzen balioa aitortzea, barruan zein kanpoan..	2.3.1 Gaitasunak aitortzeko sistema bat egitea. 2.3.2 Enpresa-erakundeekin elkartzeko egutegi bat egitea, ekintza boluntarioan eskuratutako gaitasunen aitormena zabaltzeko.	RE-KONPENZA KOMUNIKA.25
2.4. H. Erakundeetan boluntarioei arreta emateko planak bultzatzea.	2.4.1 Boluntarioei inkestak egitea, haien beharrak eta espektatibak ezagutzeko. 2.4.2 Boluntarioak artatzeko plana ondo kudeatzeko gida baten edizio digitala.	BOLUNTARIO-ESKOLA KOMUNIKA.25

2. HE Proiektuak:

BOLUNTARIO-ESKOLA.

Boluntario-lana egiten duten pertsonak gaitasun tekniko eta generiko eta zeharkakoetan trebatzeko gune bat sortzea planteatzen du proiektu honek. Sinergiak optimizatu, komunitatea sortu, pertsonak zaindu eta ahaldundu nahi dituen ekimena da.

RE-KONPENSA

BOLUNTARIOEN GAITASUNAK AITORTZEKO SISTEMA bat lortzera bideratuta dago proiektu hau. Borondate-lanak sustatzen dituen gaitasunak aitortzeko eredu edo sistema bat egiteko prozesuan oinarritzen da proiektua. Boluntario-lanaren barruan eskuratzen diren gaitasunak nabarmendu behar dira, trebetasun generiko eta antolakuntzakoak diren aldetik, enpresek eta erakundeek eskatzen dituztenekin oso lerrokatuta daudenak, baita balioetan oinarrituta ere. Baita motibazioa eta lidergoa sustatzeko ere, garapen pertsonal eta profesionaletik abiatuta.

3. I. E. Parte-hartzearen, elkartasunaren eta lankidetzaren kultura bultzatzea

Boluntario-lanaren balioei eta onurei buruz sentsibilizatzea zenbait eremutan eta mailatan, eta aro digitalak eskaintzen dituen tresna guztien bidez, lagungarria da giro egokia sortzeko herritar parte-hartzaileak sortzeko. Kolektiboen eta eragileen arteko lankidetzazubiak ezarri behar dira, guztion ongiaren aldeko ahaleginak indartzeko.

HELBURUAK	EKINTZAK	PROIEKTUAK
<p>3.1. H. Hezkuntza-eremuan sentsibilizatzea boluntario-lanaren eta partaidetza sozialaren balioaren inguruan</p>	<p>3.1.1. Berritzeguneez orientatzaileekin eta zuzendariekin egiten dituzten koordinazio-bileretan boluntarioen arloko sentsibilizazio-programei buruzko informazio-saioak eskaintzeko gutuna bidaltzea.</p> <p>3.1.2 Berritzeguneetarako boluntarioei eta partaidetza sozialari buruzko prestakuntza diseinatzea.</p> <p>3.1.3 Zuzendariak eta orientatzaileak borondate-lana gertuago ezagutzeko mintegia eskaintzea (2 ordu), Berritzeguneez bidez.</p> <p>3.1.4 Ikastetxeentzako euskarri materialak sortzea, boluntarioentzako programa propioak sustatzeko: "Zure Ikastetxeak boluntarioak izatea nahi duzu?"</p> <p>3.1.5 Sentsibilizazio-programak etengabe garatzea, ikastetxeetan eta unibertsitateetan. (Adibidez: Begiraldatu eta Unikide).</p> <p>3.1.6. Sentsibilizazio-tailerrak dinamizatzeko joko bat garatzea (Gamifikazioa).</p> <p>3.1.7 Ipuin edizioa, paperezko euskarrian, euskarri digitalean, fitxa didaktikodun audioan, irakasleek ikasgelan landu dezaten: "Kontu iezadazu ipuin bat, eta ikusiko duzu pozik nagoela" (Lehen eta Bigarren hezkuntza).</p> <p>3.1.8 Ipuin-kontakteta (unitate didaktikoa narratzaile-aktoreekin/Antzerki-lanekin).</p> <p>3.1.9 Boluntarioei eta partaidetza sozialari buruzko prestakuntza diseinatzea irakasleentzat, Prest Gara programan.</p> <p>3.1.10 Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin koordinazio-bilerak egitea, boluntarioak eta haien balioak hezkuntza-sistema formalean txertatzeko, hezkuntza-zikloaren etapa guztietan.</p>	<p>DIDAKTIKA</p> <p>KOMUNIKA.25</p>
<p>3.2. H. Digitalizazioa sustatzea boluntario-lana eskuratzeko tresna gisa.</p>	<p>3.2.1 Boluntariotza.eus webgunea indartzea, behar eta joera berriak sartuz.</p> <p>3.2.2 Erakundeentzako eta boluntarioentzako trebakuntza digitalari buruzko prestakuntza.</p>	<p>BOLUNTARIO-ESKOLA</p> <p>KOMUNIKA.25</p>

HELBURUAK	EKINTZAK	PROIEKTUAK
<p>3.3. H. Enpresa-eremuan boluntario-lanaren balioaren inguruan sentsibilizatzea</p>	<p>3.3.1 CONFEBASKein elkarrizketak egitea, Boluntario-lanaren gaitasunak Aitortzeko Sistemari atxikitzeko.</p> <p>3.3.2 Boluntariotza Korporatiboko Plana abian jartzeko gida metodologikoa egitea.</p> <p>3.3.3 Erretirorako prestatzeko Prestakuntza- eta Informazio Plana diseinatzea.</p> <p>3.3.4 Sektoreen arteko topaketak eta foroak egitea, sinergiak eta lankidetzak bultzatzeko.</p>	<p>KOMUNIKA.25</p>
<p>3.4. H. Talde espezifikoiei eta agindua ematen duten eragileei zuzendutako sentsibilizazio-ekimenak sustatzea.</p>	<p>3.4.1 Lehenetsuneko kolektiboiei (gazteak eta adinekoak) egokitutako sentsibilizazio-kanpainak zabaltea.</p>	<p>BOLUNTARIO-ESKOLA</p> <p>KOMUNIKA.25</p>
<p>3.5. H. Parte-hartze soziala eta boluntariotza sustatzea tokiko mailan</p>	<p>3.5.1 EAEko Administrazio Publikoko teknikariei harreman-esparru egonkor bat ematea, lankidetzak publiko-sozialeko proiektuak bultzatzeko eta indartzeko.</p> <p>3.5.2 Aliantza-estrategia bat definitzea, zeina Bherria lotuko baitu EAEko boluntarioekin, herritarren partaidetzarekin edo gobernu irekiarekin lotutako gaietan eragile garrantzitsuak direnekin.</p> <p>3.5.3 Udal-eragileak boluntariotzari, partaidetzari eta lankidetzari publiko-sozialari buruz Prestakuntza emateko Plan Iraunkorra.</p> <p>3.5.4 Udal-teknikarien arteko topaketak, elkar ezagutzeko, kontrastatzeko eta espiritu eraldatzailean lan egiteko.</p> <p>3.5.5 Garapen komunitarioko esperientziak asmatzea, herritarrei zuzendutako ekimen parte-hartzaile eta berritzaileen bidez.</p>	<p>BHERRIA</p> <p>BOLUNTARIO-ESKOLA</p> <p>KOMUNIKA.25</p>

3. I.E. PROIEKTUAK:

DIDAKTIKA

Hezkuntza-eremua berezko eremua da konpetentzietan eta balioetan trebatzeko. Hori horrela dela, proiektu honen helburua da sentsibilizatzea BOLUNTARIO-LANAREN INGURUAN, boluntariotza-agentzien egungo hezkuntza-sentsibilizazioko programak bateratuz, ekimen berriak kontuan hartuta.

BHERRIA

2017az geroztik, proiektu hau zuzenean lotuta dago toki-mailan partaidetzaren eta boluntariotzaren balioak sustatzeko helburu estrategikoarekin, Administrazioaren eta herritarren arteko lankidetzaren proiektuak sakontzearen eta hobetzearen bidez. Bherria: harreman eta lankidetzaren publiko-sozialerako modu berriak aztertzea eta sustatzea, irekiagoak, parte-hartzaileagoak eta erantzunkideagoak. Administrazioeko teknikarien eta politikarien eta herritarren arteko topaketarako eta ikaskuntzarako gunek bat da.

Zenbait lerro ditu:

- Prestakuntza. Ekintzarako gaikuntza, askotariko jarduerak irekien bidez: prestakuntzakoak, proiektu inspiratzaileetara hurbiltzekoak edo esperimintatzekoak, lankidetzaren publiko-sozialeko prozesuetarako tresna erabilgarrien bidez.
- Komunitatea. Parekoen arteko kontrastetik ezagutza praktikoa eta erabilgarria lortzeko ikaskuntza-komunitatea, komunitate hori osatzen duten pertsonen eskaintzen dituzten ekintza, ekimen eta/edo proiektu zehatzen bitartez.
- Topaketak. Topaketa ireki eta espezifikokoak, zenbait gai sakon lantzeko, formatuak, baliabideak eta tresna metodologikoak kasu bakoitzaren behar eta baldintzetara egokituz.

4. I.E. Boluntariotzaren kontzeptu- eta arau-esparrua eguneratzea

Boluntariotzaren testuinguru normatibo eta estrategikoa berrikusi egin behar da, maila autonomikoan garatzen diren politikak eta ekimenak koherenteak izan daitezen Estatuko eta nazioarteko esparruarekin. Eragin soziala handiagoa lortzeko, halaber, sinergiak eta trukeak ezarri behar dira Europako politikekin, eta, bereziki, ekintza boluntarioa Agenda 2030ek ezartzen dituen Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatu behar da.

HELBURUAK	EKINTZAK	PROIEKTUAK
4.1. H. Ikuspegi estrategikoa Europako boluntariotza-politikekin lerrokatzea	4.1.1 Boluntariotzari buruzko Europako politikak identifikatzeko txostena. 4.1.2 Europako organoak identifikatzeko txostena, haiek planean atxikitzeko eta parte hartzeko modua baloratzeko.	KOMUNIKA.25
4.2. H. GJHak boluntariotzaren kontzeptu-esparruan txertatzea	4.2.1 EAEko boluntariotzako erakundeen mapa egitea, GJHen egitura kontuan hartuta, ekintza boluntarioa zein GJHtan falta daitekeen eta zeinetan egon daitekeen soberan antzemateko, eta sinergiak, elkarguneak eta koordinazioa ere ikusteko. 4.2.2 GJHak gure erakundeetan zeharka nola ezarri jakiteko materiala sortzea.	KOMUNIKA.25
4.3. H. Boluntarioei buruzko araudi autonomikoa eta haren errolda eguneratzea	4.3.1 Batzorde aditu bat sortzea, boluntarioei buruzko araudi autonomikoa eta haren errolda berrikusteko.	KOMUNIKA.25